

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 4 milioi euro emango ditu 2013an Baztan, Bidasoa eta Ultzamako azpiegituretarako

Foru Komunitate osorako aurreikusi den ekarpenaren % 19,30 da, Esparza kontseilariak inguruko udaletako ordezkariekin izandako bileran azaldu duenez.

Martes, 15 de octubre de 2013

Nafarroako Gobernuak 4.029.361 euroko ekarpena egingo du Baztan eta Bidasoa inguruko eta Ultzanueta Mankomunitateko (Anue, Lantz, Odieta eta Ultzama) 16 herritan [tokiko azpiegituren 24 obra](#) burutzeko. Zenbatekoa Foru Komunitate osorako eman denaren % 19,30 da, lurraldeko biztanleria (25.082 biztanle) Nafarroa osoko biztanleen % 3,89 izanik. Biztanle bakoitzeko, 160,65 eurokoa da diru-laguntza.

2012-2014 denboraldian, Nafarroako Gobernuak 9,95 milioi euro inbertitu ditu 14,10 milioi euroko aurrekontu orokorra duten azpiegituren proiektuetan. Besteak beste, iparraldeko zonako hondakinak lekualdatzeko azpiegituren proiektua dago (2,4 milioi euroko inbertsioa).

José Javier Esparza Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria eta Francisco Pérez Arregui Tokiko Administrazioako zuzendari nagusia Donezteben elkartu dira gaur goizean lehenago aipatutako herrietako alkateekin, egiten ari diren lanen egoeraren eta Toki Azpiegituren Planaren kargurako Foru Gobernuaren ekarpenen berri emateko.

Obrak 16 herritan

Obrak Elizondo, Irurita, Narbarte, Amaiur, Aniz, Berroeta, Gartzain, Beintza, Donamaria, Sunbilla, Urrotz, Olague (Anue), Arraitz, Odieta, Erripa (Odieta) eta Doneztebe herrietan egiten ari dira, eta batik bat hornidura-sareak berritu, kaleak zolatu, tokiko bideak konpondu, argiteria berritu, araztaile berria eraiki eta hondakinak lekualdatzeko aipatutako azpiegituren obrak dira, besteak beste.

José Javier Esparzak presazkoak diren eta Toki Azpiegituren Planean gehituta dauden obren zerrenda ere eman du ezagutzera. Horietarako 1.017.674 milioi euroko diru-laguntza ematea aurreikusi da, Nafarroa osorako aurreikusi den guztiaren % 7,44. Gehienbat, iazko urte amaieran eta 2013ko lehen hiruhilekoan izan ziren eurite handiek eragindako kalteak konpontzeko dira.